



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Pedagogia Libertarioaren eredu
pedagogikoa aztergai**

Markel Saenz de Ugarte Balza

79-86 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.10>

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



Pedagogia Libertarioaren eredu pedagogikoa aztergai

Saenz de Ugarte Balza, M.
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
markel.saenz.de.ugarte@gmail.com

Laburpena

Pedagogia Libertarioa¹ pedagogia anarkista edo autoritatearen aurkakoa da, helburu argi bat daukana hasieratik: norbanakoaren eta gizartearen askatasuna. Berau anarkismoetan² sustengatzen da, eta anarkismoak historian zehar izan dituen ideia desberdinei jarraiki ikaskuntza metodo bat bilatu nahi du, zeinetan pertsonak bere gaitasunak era askean garatzea den helburu, autoritate negatiborik gabe, eta dogmarik edo doktrina inposaturik gabe. Ikerlan honetan PLren garapen historikoari egin zaio so, korrante desberdinek komunean dituzten printzipioak ezaugarritzeko, egungo hezkuntza ereduari ekarpena egin diezaiolakoan.

Hitz gakoak: Pedagogia Libertarioa · Hezkuntza · Eraldaketa

Abstract

Libertarian pedagogy is the opposite of authoritarian pedagogy, and, from the beginning, has a clear purpose: the freedom of the individual and the society. It is supported in anarchists, and in accordance with the different ideas that anarchism has had throughout history, it seeks to find a method of learning in which people can freely develop their abilities without negative authority, and without dogma or established doctrine. In this study, we have looked at historical development, in order to characterize the principles which are common to different currents, and to contribute to the current model of education.

Keywords: Libertarian Education · Education · Transformation

1. Sarrera eta motibazioa

Globalizazio neoliberalaren paradigmaren pean dagoen gizartea da gaur egun indarrean dena. Gizarte hau, gainera, sistema kapitalista heteropatriarkarraren krisialdiak baldintzatzen du, aurpegi asko dituen krisialdiak, maila ekonomikoan bakarrik ez baizik eta maila sozial eta kulturalen ere eragiten duenak. Krisialdi hau, gainera, COVID-19arekin are ageriago geratu da. Koiuntura honetan, hezkuntza eredu ere eztabaidan dago. Ondorioz, proposamen hegemonikoaz haratago doan, eta hainbeste zapalkuntza mantendu eta areagotzen dituen sistema neoliberalari eta kapitalismo heteropatriarkarrari buelta emango dion hezkuntza eredu bat planteatzea inoiz baino beharrezkoagoa da; eta are gehiago, inoiz baino posibleagoa.

Egungo hezkuntza eredu hegemonikoari kontrajarrita, badira euren proposamen pedagogiko askatzailea praktikara eraman duten eredu pedagogikoak. Horien artean aipagarria da zirkulu anarkistetatik sortutako Pedagogia Libertarioa, gaur egun aplikatzen ari den proposamena, sistemari aurre egingo dioten subjektuak eraikitza bideratutakoa. PLk pertsonok botere hegemonikoei ongi datorkiena erreproduzitu ordeztu pertsona kritiko eta askeak sortzea du helburu, edota gizarte osoa askatzea³. PL ekimen pribatueta martxan jarritako eredu izanik, etorkizunean balizko Euskal Eskola Nazionalen berorrek egin dezakeen ekarpena aztertzeke, eman diren korrante ezberdinen eta berauen printzipioen inguruko ikerketa da burutu dena.

¹ Hemendik Aurrera PL laburdura ere erabiliko da.

² Anarkismoei pluralean egin zaie erreferentzia anarkismoa ulertzeko era ezberdinak barnebiltzeko.

³ Pedagogia Libertarioa hautatu da aldaketa estruktural bat helburu duen proposamena delako, kapitalismoaren eta edozein dogmaren aurkakoa, eta urte askotan zehar praktikara eramana izan delako, eskola publikotik kanpo gehienetan.

2. Ikerketaren helburua eta metodologia

2.1. Ikerketaren helburua

Lan honen helburua, honenbestez, Pedagogia Libertarioaren eredu pedagogikoa aztertzea da, maila teorikoan.

Hori esanda, ikerketa-helburu zehatzak honakoak dira:

- 1) Pedagogia Libertarioaren garapen historikoa aztertzea eta hezkuntzaren teoria anarkista eta esperientzia desberdinen analisia burutzea.
- 2) Pedagogia Libertarioaren ekinbide desberdinek dituzten faktore komunak identifikatzea.

2.2. Metodologia

Helburuak erdiesteko lehendabizi oinarri teorikoari erreparatu zaio, eta beraz PLren aurrekariak eta sorrera aztertu dira, ideia eta autore desberdinak sailkatuz sintesi moduan. Ondoren, PLren esperientzia historikoa aztertu dira, eta berauen ezaugarriak sintetizatu. Azkenik, analisi teorikoa burutu da, PLren teoria eta esperientzia ezberdinen ondorio diren printzipio komunak bilatuz.

3. Pedagogia Libertarioaren aurrekariak eta sorrera

PLren garapen historikoa azaltzeko, ezinbestekoa da anarkismoaz beraz ere aritzea. Anarkismoaren lehen formulazio sistematikoa XIX. mendean eman zen, Frantses Iraultzan, burgesiak gora egin eta langile klasea eratu zenean, kapitalismo industrialaren jaiotzarekin batera. Hein batean Rousseauren ideietan oinarritzen ziren, zeinek Tina Tomassiren arabera ([1978]1988:14-15) pertsonak⁴ berez aske jaio direla baina leku guztietan kateatuta daudela zion, eta kate hauetatik soilik hezkuntzaren bidez salba zitezkeela gainera. Cuevas Noaren arabera (2003:45), Rousseauk, anarkista izan gabe, askatasun indibidualaren garrantzia azpimarratu zuen “inposizio eta ohitura sozialen gainetik”, eta gizakia berez ona dela defendatu zuen, natura goraituz gizartearen gainetik.

Testuinguru honetako pentsalari anarkistek hezkuntza gizarte eraldaketarako faktore garrantzitsuen bezala zeukaten. Willian Godwinek (1756-1836) lehen eskola pribatu anarkista sortzeko saiakera ere egin zuen, zeinetan autoritaterik gabeko ekintza plana egin zuen, kolaborazioan eta irakasle eta ikasleen arteko eztabaida askeetan oinarritua. (Tina Tomassi, [1978]1988:23-39).

Pierre-Joseph Proudhonek (1809-1865), Fourier eta Rousseauren jarraitzaile eta anarkismoaren erreferente handi bat izaki, “herriaren emantzipazio intelektualaz” hitz egin zuen, eta *hezkuntza integral*⁵ baten inguruan aritu zen lehen aldiz (Proudhon, [1865]1977:335-344). Proudhonen arabera hiru ziren menderatze sistemak: Estatua, Eliza eta kapitala. Lehenengoak askatasunari eragiten zionez, bigarrenak espirituari edo moralari eta hirugarrenak lanari, sistema honi aurre egiteko hezkuntzan hiru esparruak landu beharra zegoen.

Eztabaidak gora-behera, hezkuntzaren inguruan aritu ziren lehen anarkistek ideia bat zuten komunean, Castellanosek aipatzen duen (2001:1) arrazoiaren eta zientziarenganako sinesmena, eskola arrazionalista, “filosofia positibistaren” marka duena. Azken hau gaur egun esparru batzuetan gainditua dagoen arren, garaiko Elizaren botereari aurre egiteko medioa zela ulertu behar da.

Mijaíl Bakuninek anarkista ezagunak (1814-1876), positibismoaren inguruan honakoa esan zuen ([1873]2004:158):

“Metafisikoak eta positibistak, zientziaren eta pentsamenduaren paladin guzti horiek, zeintzuen zientziaren izenean bizitzaren legeak emateko beharrean ikusten duten haien burua, kontzienteki ala inkontzienteki, erreakzionarioak dira”.

⁴ Garai horretako autoreek “gizonez” hitz egiten zuten, baina gaurkotuta “pertsonai” egingo zaie erreferentzia, emakume, gizon, trans eta gainontzekoak barnebiltzeko.

⁵ Eredu hau Paul Robinek (zein Lehen Internazionalako kide zen) Cempuisen 14 urtez lehen aldiz praktikan jarri zuen 1880 eta 1894 urteen artean, eta anarkismoaren aurkako errepresioak eta mistoa izateagatik jasandako difamazioak ixtea lortu zuten arren, influentzia pedagogiko handia izan zuen, Eskola Modernoan kasu.

Bakunin hezkuntza integralaren aldekoa zen, LNEren 1868ko kongresuan⁶ ere adierazi zuen bezalaxe, baina Proudhonen ideia mutualistak⁷ alde batera utzi zituen “degeneraziorako joera” zutelakoan baitzegoen. Halaber, aurretik plazaratutako ideia indibidualistei kontrajarrit, gizarteak “norbanakoa mugatu baino aske izateko eta moralki duina den bizitza bat” izateko aukera ematen duela adierazi zuen (Tina Tomassi, [1978]1988:112-113). Are gehiago, Rousseuren ideien aurka jo zuen askatasuna “ezaugarri naturalizat hartu beharrean ezaugarri sozial bezala” ulertzen baitzuen (Cuevas Noa 2003:94); kolektiboan sinesten zuen askatasuna lortzeko, beraz.

Bakuninen jarraitzaileetarik batek, James Guillaumek (1844-1916), hezkuntza libertarioaren oinarri bati ematen zion garrantzia, umeak subjektutzat hartzeari hain zuzen ere. Beraren arabera, “kolektiboak umea mantendu eta babesteko ardura du, ez baita ez gurasoena ez beste inorena”, eta honekin “berdinen komunitate” bat aldarrikatzen zuen. Halaber, “autogestio kolektiboa” lehen printzipioa zen harentzat, hau da, ikasketa ekintza kolektiboki erabakitzea, eta era honetan, “ekintza zuzen pedagogikoa”. (Huges Lenoir, 2012:50).

Beste pentsalari anarkista ezagun batek, Prince Pyotr Alexeyevich Kropotkin (2003 [1890]), anarkismoari oinarri teoriko fundatu bat emateko saiakera “sistematiko eta ordenatuena” egin zuen, eta anarko-komunismoaren oinarriak sortu. Korrante honen pean ere, hezkuntzak berebiziko garrantzia zuen, “edozein aldaketa politiko eta sozial garrantzitsuk” pertsonen “formazio berri bat” behar baitu. Eta bere printzipioetako batzuk kontuan hartuz sortu zuen Francesc Ferrer i Guàrdia (1859-1909) Eskola Modernoa. Eskola honetan, Paul Robinek Cempuiseko umezurtz-etxean egin zuen bezalaxe, hezkuntza integrala praktikan jarri zen, eta biek filosofia positibista jarraitzen zuten.

Bestalde, proposamen pedagogiko libertarioen artean eskola era oraindik erradikalago batean kritikatzeko duena ere aurkitzen da, deseskolatzearen ingurukoa, erreproduktzioaren teorian pean. Ivan Illich ([1971]2006) eta Everett Reimerrek ([1973]1986), adibidez, *Gizarte deseskolatua* eta *Eskola hil da* lanetan eskolak pertsonak gizarte dinamika hegemonikoan mantentzeko helburua dutela diote, nahiz eta Illichek egiten duen kritikarik nabarmenena. Planteamendu honekin, eskolak bizikidetzeta eta alaitasuna sustatuko luketen unitateengatik ordezkatuak izango ziren, hezkuntza formalaren deseskolatze bat emanez eta hezkuntza ez-formala eta hezigaien gaitasun autodidakta birbalorizatuz. Analisisirako tresna bezala, ideia eta autore desberdinak 1. Taulan agertzen den moduan sailkatu daitezke:

Izaera EZ ZUZENDARIA duten hezkuntza-teoria anarkistak			
Teoria	Garaia	Idea Nagusiak	Autoreak
Teoria anarkista indibidualista	XIX. mendea	-Norbanakoa hezkuntza-ekintza ororen ardatz, Rousseuren printzipioetan oinarrituta hein batean, baina liberalei kritikekin.	Max Stirner (1806-1856) Godwin Henry D. Thoreau
Neutralismo pedagogikoa	XX. mende hasiera	-Askatasuna tresna da, hezkuntza askatasunaren	Ricardo Mella Cea (1861-1925) Eleuterio Quintanilla (1886-1966)

⁶ Langileen Nazioarteko Erakundea, 1864an Londresen sortua, zeinetan 1868an sartu zen Bakunin.

⁷ Cuevas Noaren arabera (2003:35) korrante alternatibo anarkistak hiru modutan garatu dira: mutualismoa (Proudhon), kolektibismoa (Bakunin), eta komunismo libertarioa (Kropotkin).

Tolstoi hezkuntza ikuspegia	XIX. mende amaiera – XX. mende hasiera	<i>bitartez</i> egin behar da.	-Anarkismo kristau eta ez-biolentoa. -Pertsonak zoriontsu dira naturatik hurbil eta zibilizaziotik urrun, azken honek garapen espiritualari trabak jartzen baitizkio. -Hezkuntzak hezigaia ez biolentziara eramango du, hertsadura ezera, errepresioan oinarritutako gainontzeko eskoletan ez bezala.	Leon Tolstoi (1828-1910)
Izaera SOZIOPOLITIKOA duten hezkuntza-teoria anarkistak				
Teoria	Garaia	Idea Nagusiak		Autoreak
Bakuninen hezkuntza-teoria	XIX. mendea	-Hezkuntzak gizarte orientazio sendo bat izan behar du, konpromiso morala hartzeko eta gizartearen eraldaketarako hezi behar du. -Askatasuna ezaugarri natural ez baizik eta soziala den heinean, askatasuna helburua da.	-Norbanakoa ez da berez askea, askatasuna borrokaren bidez, norbanako gehiagorekin, eta borondatez lortzen da. - <i>Continuum</i> bat, autoritaterik askatasun osoraino, hau da, autoritate osotik autoritate ezerainoko segida graduala hezkuntzan. -Autokontrollean hezkuntza, eta ez umeen nahi eta gutizi guztiak asez. -Herritarrentzako eskolak ere planteatu zituen, zeintzuetan ez zen jakingo zeintzuk diren ikasleak eta zeintzuk irakasleak. -Positibismoari muzin egiten dio. -Emakume eta gizonen arteko diskriminaziorik ez.	Mikhail Alexandrovich Bakunin (1814-1876) James Guillaume (1844-1916)
Ferrer i Guardiaren hezkuntza pentsaera	XIX. mende amaiera – XX. mende hasiera	Hezkuntza <i>askatasunerako</i> egin behar da. -Hezkuntzaren izaera politikoa azpimarratzen da, are gehiago, ez dio ideologia transmititzeari uko egin behar.	-Hezkuntza arazo politiko bat bezala identifikatzen da, botere menderatzaileek (elizak, estatuak eta enpresek) beraientzako erabili ohi dutena. -Irakaskuntza zientifiko eta arrazionala: irakaskuntza arrazionalista. -Hezkuntza mistoak etorkizuneko berdintasuna ekarri behar du. Paidozentrista da: umea hezkuntza-prozesuaren zentroan.	Francesc Ferrer i Guàrdia (1859-1909)
Deseskolatzearen teoria	1960t ik aurrera	-Hezkuntza neutralik ez dago, denak pertsonen eta gizartearekin ideia batean oinarritzen baitira.	-Eskolaren “heriotza”. Instituzioei kritika egiten zaie, “asistentziatik dependentziarako urratsa ematen ari direlako”, eta beraz, “kustodia eta kontrolerako”. -Eskolek pertsonak bere gaitasunetatik bereizten dituzte instituzio eta jakitunen autoritatearekiko dependentziara bideratuz. - <i>Gaitasunen lonjak</i> izango lirateke, “ezagutza truke zerbitzuak”, era honetan irakaskuntza formala deseskolatuz, eta bai hezkuntza ez-formalaren bai hezigaiei gaitasun autodidaktaren balioa handituz. -Paul Goodmanek proposamen misto bat egin zuen, bizipen-hezkuntza komunitate batekin deseskolatzea osatuz.	Ivan Illich (1926-2002) Paul Goodman (1911-1972) Everett Reimer (1910-1998) John Caldwell Holt (1923-1985) Søren Hansen, Jesper Jensen eta Bo Dan Andersen (1980)
*OHARRA: Sailkapen hau analisirako erreminta da, hainbat autore daude (Kropotkin, Proudhon, Malatesta...) hezkuntza libertarioari ekarpena egin bai baina hemen non sailkatu erabakitzean eztabaida sortzen dutenak. Pedagogia Libertarioaren bilakaerari eta korronteei hurbilpen bat da.				

1. Taula. Hezkuntzaren teoría anarkista desberdinak.

4. Pedagogia Libertarioaren esperientzia desberdinak

Orain arte azaldutakoak anarkismoaren ikuspegi desberdinetatik abiatuz bere teoria edota esperientzien bidez hezkuntzari ekarpena egin dioten autoreak eta ideiak badira, ideia teorikoak praktikara eraman diren kasurik aipagarrienak ere aztertzea beharrezkoa da.

Autoritatearen aurkako Pedagogia Libertarioko esperientzia historikoak			
Eskola	Garaia: Kokapena	Sustatz ailea(k)	Ezaugarriak
Yásnaia Poliana	1859-1862, eta 1871-1910. Yasnaia Poliana, Errusia	Leon Tolstoi	Doako klaseak baserritarren alaba-semeentzako. Ez dago ez ordutegi, ez programa, ez beharrian, ez disziplinarik. Zigorrik ez, saririk ez, azterketarik ez. Metodologia desordena ala “ordena askean” oinarritua, ikaskuntza prozesuak aurrera egitean ebazten doana. Elkarrekiko irakaskuntza eta elkarlana.
Prévost umezurtz-etxea	1880-1894: Cempuis, Frantzia	Paul Robin	Hezkuntza integrala, lan intelektual-zientifiko eta fisikoan oinarritua. Teologia zientziagatik ordezkaturik, matematikak eta natura-zientziak zentroan (filosofia positibista). Libururik eta zigorrik ez. Internazionalismo baketsuaren eta emakumeen askapenaren aldekoa, hezkidetzatza.
Eskola Modernoa	1901-1906: Bartzelona, Katalunya	Francesc Ferrer i Guàrdia	Bi klase: prestakuntzako eta goi mailakoa, adin desberdinak nahastuta. Behaketa eta esperimentaziorako material asko. Eskolaz kanpoko ekintzek garrantzi handia. Lan intelektual eta manuala lotuta. Sexu eta klase hezkidetzatza. Azterketarik ez, notarik ez, sari eta zigorrik ez. Lana egiten zen zentroa eta printzipioak internazionalki zabaltzean.
Alemaniko ikas-komunitateak (Gemeinschaftschule)	1918-1936: Hamburgo eta gehiago, Alemania	Wilhelm Paulsen, Schmid	Umearengandik hasteko printzipio pedagogikoa, autogobernua. Umearengan bizikide diren pertsonen ardura sortzearen helburua. Eskola publikoan integratuta, 100 komunitate inguru 600 ikasleko mediarekin. Ez dago ez ordutegi, ez programa, ez zigor, ez ezagutzaren konpartimentazioa. Irakaslea irakasle-kidea da. Ordena era komunitarioan sortu, denon artean ikas-komunitate perfektua sortzeko. Hezkidetzatza.
CENU: Eskola Berri Unifikatuko Kontseilua	1936-1937: Katalunya	Juan Puig Elías (CNTkoa)	Katalunyako hezkuntza koordinatzeko sortu zen. Ideia eskola estatuetik pedagogia libertarioa koordinatzea zen, lanaren eta giza senidetasunaren printzipioen pean. Sindikatu, ateneo eta eskola errepublikarren sarea batzen zituen, eta hezkuntzaren erreforma osoa proposatu. Proposatutako hezkuntzaren oinarriak: laikoa, hezkidetzatza, katalanez, formazio artistikoarekin, eta metodologia berriak (Freinet, Danton, Montessori).
La Ruche	1904-1917: Rambouillet, Frantzia	Sebastien Faure	Kooperatiba integrala, lana eta hezkuntza lotuta (Parisko CGTren laguntza pean). Sari, zigorrik eta azterketarik ez. Irakasleekin erlazio horizontala. Elkartasun erlazioak sustatzen ziren bai La Ruche barruan bai gizartearekiko. Esparru berde handiekin, eta leku garbi eta ondo ekipatua. Txikitatit hezkidetzatza.
Paduako Uno haurtzaindegia-komuna	1974-urte batzuk: Padua, Italia	Psikologia Fakultateko ikasle batzuk	Haurtzaindegia antiautoritario autogestionatua. Umeak komunitatean bere izaera guztiarekin integratzeko helburua, erabilera erlaziorik gabe. Umeen galderetatik sortu zen komuna bat osatzeko ideia. Politikoki “abangoardia kulturaltzat” du bere burua, bere arma pedagogia izanik, sistema zalantzan jartzeko bere hezkuntza sistematik. Gurasoen konpromisoa funtsezkoa da. Erlazio espontaneoak, sortzaileak eta maitasunezkoak umeekin.
Eskola-eragozpen mugimendua	80. hamarkada - Gaur egun	IVan Illich, John Holt	Gurasoen seme-alaben hezkuntzaren ardura hartzea. Growing Without School Estatu Batuetan. Eskolak handiegiak, burokratikoegiak, eta dena kontrolatzeko aldekoak direlako ideia. Euskal Herriaren hegoaldean ilegala den bitartean iparraldean posible da. Normalean gurasoen talde ekintzak bultzatzen dituzte.
Paideia eskola askea	1978 – gaur egun: Merida, estatu espainola	Josefa Martín Luengo	Norbanakoaren askatasuna taldearen askatasunarekin batera. Autoritate eza eskolan, dena erabaki kolektiboen bidez. Sexu eta gizarte hezkidetzatza, inolako diskriminaziorik gabe. Jolasa jakintzarako ate moduan, berau bidez lankidetzatza, gizarteratzea eta poztasuna landuz. Norbanakoaren autonomia intelektual eta sozioafektiboa, asumitutako eta hierarkizatutako menpekotasun ororen ukazioarekin batera. Gizartearen aldaketa bilatzen da.
*OHARRA: Esperientzia hauek baino gehiago egon dira eta daude. Gaur egun Ojo de Agua (Alacant), El Roure (Barcelona), O’Pelouro (Pontevedra), Els Donyets (València) eta beste hainbat gehitu litezke, adibidez.			

2. Taula. Hezkuntza esperientzia libertario historikoak.

5. Pedagogia Libertarioaren printzipioak

Azterketaren ostean, hezkuntza libertarioan lau printzipio orokor eta komun daudela esan daiteke:

- **Autoritarismoaren aurkako jarrera**

PL jarraitzen duten teoria eta esperientzietan klasean bertan autoritateei eta menpekotasunei uko egiten zaie, autonomia eta askatasun (indibidual zein kolektiboko) ikaskuntza proposatuz. Honek bere bizitzaren jabe diren pertsonak formatzea du helburu, zeintzuk ez diren zapaltzen edo ustiatzen utziko. Askatasuna eta autonomia hauek eraikitzerako orduan, batzuk errespetu osoaren alde egiten dute, hezitzaileek hezigaiei ezer inposatu behar ez dietela esanez, baina beste batzuk eraikuntza hau pixkanakako prozesu aktibo bat izan behar dela uste dute, gutxika igotzen doana.

Anarkismoek, Cuevas Noak baieztatzen duenez, era “negatiboko” autoritateari soilik egiten diete muzin, botere harremanei loturikoari. Bestelako autoritatea, “moralak”, zein pertsona batzuen jakinduriari errekonozimenduan oinarritzen den, autoritate “positibo”⁸ bezala hartzen da. Honenbestez, onartzen da eskoletan irakasleek, ala Paideia eskolako terminologia gogora ekarriz “laguntzaileek”, eragin handiagoa izan dezaketela asanbladetan; baina hau ez da autoritate “negatibotzat” jotzen eragin handiago hori era naturalean ematen baita, haien aginduak jarraitzeko beharrezkotasunik gabe, beti era horizontalean emandako elkarriketa oinarria izanda.

Bestalde, autoritatearen aurkako hezkuntza batek umea ala gaztea hezkuntza-erlazioaren zentroan jartzen du; “izaera paidozentrikoa” du (Cuevas Noa, 2003:83). Hezkuntza ume ala gazteen nahi eta askatasunetik pentsatzen da. Baina Félix García Moriyonen hitzak gogora ekarriz (1985:111):

“..., inola ere ez da autoritarismoaren ukazioa permisibitate absolutuarekin nahastu behar, honekin umea beti bere borondatea ase nahi duen tirano grinatsu bat bilakatzeko arriskua baitago, elkartasuna bezalako baloreei muzin eginez”.

Honexegatik, pedagogia libertarioan errespetua eta elkartasuna bezalako baloreak dira sustatzen direnak, komunitateak autoritate negatibo baten beharrik gabe funtzionatzeko.

- **Hezkuntza integrala**

Hezitzaile anarkistek era desberdinetan interpretatu duten arren, denek komunean minimo bat zeukaten: desberdintasun handiko gizarteak lan intelektuala eta lan manualaren arteko banaketan oinarritzen direla. Ondorioz, hezkuntza libertarioaren inguruko teoriko guztiak David Seiz Rodrigoren aburuz (2010:13) hezkuntzak “lan manual eta intelektualentzako ezagutzak banatuz” zeukan muga apurtzearen aldekoak ziren, eta hala jarri izan da praktikan esperientzia desberdinetan. Halaber, anarkista askok hiru menderatze sistema nagusi identifikatzen dituzte, Estatuak, Eliza eta kapitala. Eta Estatuak askatasunari eragiten zionez, Elizak espirituari eta kapitalak lanari, Héloïsa Castellanosen arabera (2001:1,3), “ekintzek, esperientziek eta arrazonamenduek” sustengatzen duten hezkuntza integrala jotzen da beharrezkotzat, zapalkuntzei aurre egin ahal izateko.

Hein batean, ideia hauek gaur egun aipatzen diren hiru zapalkuntza nagusien aurrekaritzat hartu litezke, genero zapalkuntza tradizio judeo-kristauaren ondorio baita, klase zapalkuntza kapitalismoarena eta zapalkuntza kolonialean ala nazio zapalkuntzan garaiko estatu ereduak eragina izan du. Ondorioz, hezkuntza integral honek testuinguru hartako subjektu politikoa formatzea izango luke helburu.

Lan manuala eta intelektualaren arteko dikotomia apurtzeari dagokionez, ideia desberdinak egon dira apurketa aurrera eramaterako orduan, nahiz eta proposamen denak biak eskolan

⁸ Daniel Parajuá (2010:22) CGT irakaskuntzako kideak irakasleen paperaren inguruan: “ez dugu zereginik izango ez badugu uste komunikatzeko zeozer dugula, oinarria ez bada gure ezagutzak transmititu daitezkeela, interesgarriak direla (eta baita dibertigarriak ere) eta gure ikasleentzako baliagarriak izan daitezkeela; gelan sortzen dugun autoritateak hemen behar du oinarritu”.

integratzearen alde egon. XIX. mendeko autoreek eta XX. mendeko hasierakoek lan manuala lan produktiboarekin lotzen zuten, helburua esparru denetan garatzea izanda Cuevas Noak dion bezala (2003:84) “lan intelektuala gehiago ez baloratzeko” helburuarekin. Baina beste batzuk lan manuala eskolaren zaintza lanak guztion artean egitearekin lotzen dute, lan birproduktiboarekin. Azken hau puntu garrantzitsua da, gaztetatik neska eta mutilek berdintasunean edozein lan egitean, bi motatako lanak parekatuz, “genero rolekiko obsesioa jaisten baita” (Josefa Martín Luengo, 2016).

- **Autogestio pedagogikoa**

Silvio Gallok baieztatzen duenez (1997:8), ikuspegi anarkistatik “hezkuntza iraultzaile posible bakarra Estatuak definitutako testuingurutik kanpo ematen dena da”, are gehiago, hori bera egitea ekintza iraultzailea da. Bere aburuz, hori da autogestioa.

Baina autogestio pedagogikoa haratago doa Cuevas Noaren arabera (2003:86):

“..., autogestio pedagogikoak hainbat alderdi hartzen ditu: hezkuntza-esparruak sortzeko gaitasuna (eskolak, ateneoak etabar) zentro anarkistengandik eta beraien medioekin; taldearen ikasketen auto-antolakuntza, ikasle eta irakasleak barne; eta ikasketen auto-kudeaketa hezigaien esfortzuaren bidez, autodidaktismo, ikerkuntza teknika eta talde-lanen bidez”.

Honenbestez, eskola libertarioetan inolako autoritate negatiboren nahiak ez dira plasmatu behar, kanpo eragileekiko dependentziarik eza aldarrikatzen delarik. Halaber, eskola barruan ikaskuntza-taldeak berak era autonomoan, horizontalean eta asanblearioan, hierarkiarik gabe eta denon parte-hartzearekin dauka hezkuntzaren kontrola eta ardura. Honenbestez, taldeak definitzen ditu edukiak, metodoak, erritmoak, helburuak, bai eta jarraitu nahi diren ordutegiak edota programak ere, jarraitu nahi izanez gero. Dena den, korronte libertarioetatik Estatuarekiko inolako menpekotasun eza aldarrikatzea normalena bada ere, CENU eta Hamburgoko ikas-komunitateetan adibidez eskola publikoaren aldaketa bat izan zen sustatu zena, guda eta aldaketa handiko testuingurua izanik.

- **Elkarren sostengua eta elkartasuna**

Anarkismoek hezkuntzan balore desberdinak eskaintzen dituzte, elkarren sostengua eta elkartasuna goraipatuz, bai eta elkarrekiko errespetua ere, gizarte berri bat sortzera bidean, zapalkuntzarik gabea. Lehiakortasun era desberdintasunei aurre eginez, pedagogia libertarioak “elkarlana eta partekatutako lana” sustatzen ditu, ez soilik ikasle eta irakasleen artean, baita irakasleen artean ere (Rafael Fenoy Rico 2008:5).

Eskolan sailkatze eta lehiakortasun oro ezabatzea da eskatzen dena, berdintasunezko eskola bat. García Moriyonen aburuz (1985:114), “pertsonen garapen osoa” sustatzen duena, baina beti elkartasunaren balorean oinarritutako gizarte batean.

Vidal González Rusen arabera (2010:102-13) elkartasunak “pertsona bakoitzak bere alea jartzen duela suposatzen du bere ingurukoengan proiektatzeko” eta honek ondorengo kontzeptua dakar: “askatasun arduratsua”. Norbanakoek taldearekiko konpromisoak hartzen dituzte, aske izateko ardurak hartu behar direnaren ideiaaren pean, “askatasun kolektiboa” eraikiz.

6. Ondorioak

Pedagogia Libertarioa bezalako teoria eta esperientzietatik balizko Euskal Eskola Nazionala elikatzea posible da, eta beharrekota da horrelakoengandik ikastea, eraldaketara bideratutako proposamenak diren heinean. Ikerlan honetan egindako analisiaren ondoren, lau printzipio komun azaleratu dira PLn. Hauei so eginez, ondorioztatzen da PLk analisi politikoa egin bai baina norbanakoaren askatasunean konfiantza osoa daukala bere erabakiak hartzeko gaitasunean, nahiz eta erabakiak kolektiboan hartu.

Printzipioak egungo eskola publikoan era integralean aplikatzea zaila den arren, bide horretan urratsak eman daitezke. PLn kurrikulua norbanakoarena eta norbanako desberdinek osatutako taldearena den bitartean, kurrikulua politikoa ere da, eta beraz komunitateak eztabaidagai daukan zeregina da.

7. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Hau lehen urratsa da, baina beste asko geratzen dira emateke. PLren inguruko eskola desberdinen analisi dokumentala eta landa lana egitea beharrezkoa da maila teorikoan egindako analisia osatu eta ideia berriak hartzeko. Halaber, gizarte eraldaketa bat helburu duten hezkuntza eredu gehiagorekin prozesu berdina burutzea funtsezko urratsa da ikerketa elikatzeke, Hezkuntza Herritarra ala ikas komunitateak, kasu.

Ikerlan hau hezkuntza formalean, eta ondorioak teorikoak izan dira. Etorkizunerako, ostera, ondorio hauek praktikara nola eraman aztertzea beharrezkoa da, eta honetarako hezigai eta hezitzaileek eskola publikoan printzipioak aplikatzeko bidea zirriborratzea da idealena, Ikerketa-Ekintza-Partehartzailearen bidez, denak prozesuaren parte izanik. Eta ez hori bakarrik, zabaldu daitezkeen Unitate Didaktiko eta bestelakoak sortzen joan sareak sortzearekin batera, Pedagogia Libertarioa hedatu eta gizarte eraldatzeko hezkuntzan ekarpena egin ahal izateko. Paperak dena eusten du, eta eraldaketa sustatzea helburu duten lanak paperetik mundura hurbiltzea beharrezkoa da. Honenbestez, espero dut egungo hezkuntza-eredua kolokan jartzen duten lanek hausnarketa kritikorako eta praxirako pizgarri bezala balio izatea.

8. Erreferentziak

- Bakunin, M. A. (2004). *Estatismo y anarquía*. Buenos Aires: Anarres argitaletxea, Utopía Libertaria saila. ISBN: 987-20875-3-9 (Lehenengo argitalpena 1873).
- Castellanos, H. (2001). *L'education intégrale*. Revue Réfractations online aldizkaria, 7. zenbakia.
- Cuevas Noa, F. (2003). *Anarquismo y educación. La propuesta sociopolítica de la pedagogía libertaria*. Madril: Fundación de Estudios Libertarios Anselmo Lorenzo, Cuadernos Libertarios 11.
- Fenoy Rico, R. (2008). *Hacia una pedagogía alternativa*. Burgos: CGT Burgosek egindako "Pedagogías Libertarias" esposatzea, 5. orrialdea.
- Gallo, S. (1997). *El paradigma anarquista de educación*. Semillas de Libertad web orrian argitaratutako dokumentua, Plataforma ácrata digital.
- García Moriyon, F. (1985). *Del socialismo utópico al anarquismo*. Madril: Cíncel Argitaletxea.
- González Rus, V. (2010). *Paideia, una escuela libre. Memoria de prácticas de enseñanza*. Buenos Aires: Paideia eskolak argitaratutako memoria.
- Illich, I. (2006). *La sociedad desescolarizada*. Argentina: Tierra del Sur argitaletxea (Lehenengo argitalpena 1971).
- Kropotkin, P. (2003). *La moral anarquista*. Madril: La catarata (Lehenengo argitalpena 1890).
- Lenoir, H. (2012). *Educación y pedagogía en la tradición libertaria*. Santiago de Chile: Erosión Aldizkaria, 2. zkia, 2013an argitaratua, 45-54. orrialdeak.
- Martín Luengo, J. (2013). *Educación para la igualdad*. Merida: Paideia eskolako web orrian Paideia kolektiboak argitaratua.
- Parajuá, D. (2010). *No se puede hacer nada. Se puede hacer todo*. Madrid: Libre Pensamiento aldizkaria, 64. zkia, 20-27. orrialdeak.
- Proudhon P-J. (1977). *De la capacité politique des classes ouvrières*. Paris: Les Editions du Monde libertain, t.2, 335-344. orrialdeak. (Lehenengo argitalpena 1865).
- Reimer, E. (1986). *La escuela ha muerto. Alternativas en materia de educación*. Espainia: Labor/ Punto Omega argitaletxea (Lehenengo argitalpena 1973).
- Seiz Rodrigo, D. (2010). *Desescolarizando la escuela. Las experiencias educativas de Summerhill y Paideia*. Madrid: Libre Pensamiento aldizkaria, 64. zkia, 12-19. orrialdeak.
- Tomassi, T. (1988). *Breviario del pensamiento educativo libertario*. 2. argitalpena. Cali, Kolonbia: Otra Vuelta de Tuerca (Lehenengo argitalpena 1978).

9. Eskerrak eta oharrak

Eskerrak eman dizkiet Hegoako kideei, bide honetan lehen urratsa ematea ahalbidetzeagatik, eta mundua iraultzeko borrokan ibili zaretenoi eta egun zabiltzatenoi, zuek gabe, zuen konpromisoa eta ilusioa gabe, eraldaketan pentsatzea zentzugabea litzakeelako.